



Bertsozale Elkartearen Berripapera



Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko OTSAILA - 181. zenbakia

Parte-hartzerik handienarekin dator Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Tafallan ekingo diote txapelketari otsailaren 18an; finala Iruñean jokatu da apirilaren 8an, Anaitasuna kiroldegian.

43. edizioa du aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Tafallan hasiko da otsailaren 18an, eta apirilaren 8raino jokatu dira saioak.

Inoiz baino bertsolari gehiagok eman dute izena aurtengoan: 35 bertsolarik. Horietatik bederatzik lehenengo aldir parte hartuko dute txapelketan. Parte-hartzaile kopuru handiaren ondorioz,

kanporaketa saio bat egin zen abenduaren 16an Iruñean, izena eman duten bederatzik bertsolari berriekin. Horietatik lehenengo laurak sailkatu dira final laurdenetara. Parte-hartzaile kopuru handiak erakusten du sasoi ona estuki lotuta dagoela azken urteotan Nafarroako Bertsozale Elkarteak transmisio arloan egin duen lanarekin.

Finala, Anaitasunan

Abenduko saioaz gain, hemendik aurrera hiru fase edukiko ditu txapelketak: bost final-laurden jokatu dira, hiru finalurreko, eta finala. Final laurdenak eta finalurrekoak sei bertsolari osatutako saioak izango dira; finala, zortzi bertsolari jokatu dute.

Finala 2015ean Elizondon egin bazen ere, aurtengoan berriro ere Iruñera itzuliko da, Anaitasuna kiroldegira. Apirilaren 8an izanen da, larunbata, eta biharamunean Korrikaren amaierako jai ospatuko da. Asteburu guztian beraz, Nafarroako hiriburua euskalgintzaren eta

kulturgintzaren gune bizia bilakatuko da. Saio guztietarako sarrerak aurrez internetez erosi ahal izango dira, www.bertsosarrerak.eus atariaren bitartez. Horrez gain, saioak egingo diren herrietan ere aurre-salmentarako guneak egongo dira.

Txapelketaren inguruko informazio osoa www.bertsozale.eus webgunearen barruan aurkituko duzue, Nafarroako Txapelketari eskainitako atal berezian. Sare sozialen bidez ere segitzeko aukera izanen da, Facebook eta Twitter bidez. Era berean, Bertsoa sareko plazak ere jarraipen berezia egingo dio txapelketari www.bertsoa.eus webgunean.



2015eko Nafarroako finala.//XDZ



NAHIA SASCOTXEBERRI
Donostia, 2017-I-21
Mikel Laboaren VI. Bertso Sariketaren irabazlea

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Arratsaldean abiatu naiz hunat autoa hartuta ama zurekin, zure ondoan kalaka eta diskuta. Nahiz saioaren denbora egun ezin nuen ez nik hauta zure laguntza ta pazientzia ezin ditugu izkuta. Beraz txapela eskaintzen dizut ongi merezi duzu ta. (bis)

EGUTEGIA

Final-laurdenak

Otsailak 18. Tafallako Centro Cultural Tafalla Kulturgunean, 17:30ean.

Otsailak 19. Auritz Kultur Etxean, 17:30ean.

Otsailak 26. Lakuntza Kultur Etxean, 17:30ean.

Martxoak 4. Irurita Gizarte Bilgunean, 17:30ean.

Martxoak 5. Uharte Arte Garaikideko Zentroan, 17:30ean.

Finalurrekoak

Martxoak 18. Bera Kultur Etxean, 17:30ean.

Martxoak 19. Antsoain Kultur Etxean, 17:30ean.

Martxoak 26. Agoitz Kultur Etxean, 17:30ean.

Finala

Apirilak 8. Iruñea Anaitasuna kiroldegian, 17:00etan.

38 taldek parte hartuko dute Gipuzkoako Herriarteko txapelketan

Hilabete honen hasieran hasi eta maiatzera arte egingo dira saioak; finala maiatzaren 27an jokatu da Azpeitiko Izarritz pilotalekuan.

Martxan dago Gipuzkoako Herriartekoa, taldekako txapelketa. Otsailaren hasieran jokatu dira lehenengo saioak, eta maiatzera arte egingo dira herriz herri. Finala maiatzaren 27an jokatu da Azpeitiko Izarritz pilotalekuan. Parte-hartzaile guztien txapelketa izango da, eta lehia baino gehiago, gozamina izango du ardatz. Guztiaren oinarria auzolana da.

Bertsozale Elkarteen funtzioa koordinazio orokorra eta saretze lana izango da. Antolatzaileak txapelketako 267 parte-hartzaileak izango dira, eta horien sostengu izango dira Gipuzkoako Gai-jartzaile taldea, Epaile taldea eta elkarteko lan talde teknikoak.

Guztira 38 taldek eman dute izena. Talde bakoitzak gutxienez sei partaide behar ditu: taldearen ordezkaria, gai-jartzailea, epailea eta hiru bertsolari.

Herriartekoak lau fase izango ditu:

- Lehenengo fasea: otsailaren 3tik martxoaren 12ra. 38 taldeak 12 multzotan banatu dira. Hamar multzo hiru taldekoak dira eta, beste biak, lauokak. Multzo bakoitzetik talde bakarra sailkatuko da hurrengo fasera.
- Bigarren fasea: martxoaren 23tik apirilaren 9ra. Aurreko faseetik sailkatu diren 12 taldeak lau multzotan banatuko dira, hiruak. Multzo bakoitzetik bat sailkatuko da finalurrekoetarako.
- Finalurrekoak: maiatzaren 6an eta maiatzaren 13an izango dira. Lehenengoa Alegian, eta, bigarrena, berriz, Bergaran. Bakoitzean bi talde ariko dira lanean.
- Finala: maiatzaren 27an izango da, Azpeitiko Izarritz pilotalekuan.

Lehiatik kanpo geratu arren, taldeak amaierara arte izango dira ekimenaren parte; funtzio aldaketa baino ez dute izango.

Herriartekoaren jarraipena eta sarrerak

Saiotara joan nahi duenak www.bertsozale.eus atarian begira dezake agenda osoa. Sare sozialetan ere Gipuzkoako Bertsozale Elkarteen profilen bitartez jarraipena egingo zaio: @GBertsozale Twitterren eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteen Facebooken. Twitterren #herriartekoa traola erabiliko da.

Finalurrekoetarako eta finalerako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu ahal izango dira.



Azpeitian aurkeztu da Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa.//XDZ

Bizkaiko Taldekakoa, martxan

Parte-hartzean oinarritutako txapelketa informala izango da eta Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria sendotzea izango du helburu.

Bizkaian ere abian da taldekako txapelketa. Txapelketaren bitartez oinarrian eragin gura da; hau da, bertso-eskolak eta eskualdeak indartu gura dira. Taldekako txapelketa giro informalean eta jai giroan gauzatzea da helburua.

Taldekakoan bertsolari guztiek edukiko dute lekua, baina batez ere bertsolari hasiberriei plazarako bidea erraztea da asmoa, eta Txapelketa formalean baino gune informalean erosoago sentitzen direnei beste aukera bat eskaintzea ere bai. Horrez gain, antolatzaile, epaile eta gai-jartzaile berrien sorrera ere bultzatuko da. Eta zelan ez, eskualdeen arteko harremana sendotzea ere bada asmoa.

Gutxienez sei lagunekoak izango dira taldeak, eta hurrengo funtzioak eta lanak egongo dira: hiru bertsolari, gai-jartzaile bat, epaile bat eta laguntzaile bat. Bertsolari bakoitzak ariketa desberdinak egingo ditu, bakoitzak bere mailara egokitutakoak.

Txapelketak hainbat fase edukiko ditu. Hiru taldeko saioak egingo dira, eta hirukotetik batek egingo du aurrera. Horrela taldeak gutxitzen joan eta finalera heldu arte. Finala ekainaren 3an jokatu da.

Badator Eskolartekoa!

Herralde guztietan egingo dira gazteen neurri antolatutako saioak; finalak udaberrian jokatuko dira, Bertso Eskolen Egunen baitan. Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek elkarlanean antolatzen dugu Eskolartekoa.

Azken urteetako bide beretik dator aurten ere Eskolartekoa, gazteen neurri egindako saioekin. Haur eta gazteek jendaurrean kantatu ahal izateko guneak eskaintzen dira Eskolartekoan: harremanak egin, euren hurbilekoak bertsozaletu eta antolakuntza lanetan ardurak hartzen ikastea da Eskolartekoaren helburua.

Aurten ere, herrialdeetan egingo dira saioak, baita Euskal Herri mailan ere. Herrialde guztietan oinarri nagusi berak konpartitzen dira, baina bakoitzak bere berezitasunekin. Eskolartekoak barnebiltzen duen guztia Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek antolatzen dugu, elkarlanean.

Gazteenentzako, bertso merenduak

15 urtetik beherako gazteak ez dira txapelketan lehiatuko. Eurentzako, bertso merenduak antolatuko dira hainbat herritan. Inguruko bertso-eskoletakoak elkartuko dira, eta giro hurbilean eta goxoan egingo dute bertsoan.

Urtean zehar egiten diren bertso merendu eta gazteen saioez gain, 15-18 urtekoek Eskolarteko txapelketan kantatzeko aukera ere izango dute. Nahi duten moduan parte hartu ahal izango dute txapelketan: bertsolari moduan, zein gai-jartzailer moduan. Antolakuntzan parte hartzeko gonbita ere luzatuko zaie.

Herralde bakoitzak bere txapelketa izango du. Kanporaketak formatu goxoan egingo dira: bertso afari zein merendu bueltan, edo areto txikietan. Finalak, berriz, oholtzan izango dira, herrialdeko Bertso Eskolen Egunen baitan.

Euskal Herriko finala, ostera, jai giroan egingo da. Ipar Euskal Herrian egingo da aurtengoa, ekainaren 10ean.

Saria: Ahots Baten sormen egonaldia

15-18 urte bitarteko Euskal Herriko finalistek sari ederra edukiko dute: Ahots Baten Sormen Egonaldian dohainik parte hartzeko

aukera. Egonaldia 2017ko Gabonetan egingo da, eta Euskal Herri mailako sormen egonaldia izango da. Eskolartekoan parte hartu duten gazte guztiei zabalduko zaie egonaldian parte hartzeko aukera.

Finalak

- Araba. Maiatzaren 13an: gazteak. Maiatzaren 27an: umeak.
- Bizkaia. Ekainaren 3an.
- Gipuzkoa. Apirilaren 2an, Azpeitian.
- Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoa. Maiatzaren 20an, Hazparnen.
- Nafarroa. Apirilaren 28an, Leitzan.
- Euskal Herriko finala eta festa. Ekainaren 10ean, Ipar Euskal Herrian.



2016ko Eskolarteko finala.//XDZ

Bertso Udalekuetan begirale, sukaldari edo zuzendari izateko izen-emate epea, zabalik

2017ko udan Bertso Udalekuetara begirale, sukaldari zein zuzendari moduan etorri nahi dutenentzat, izena emateko epea otsailaren 16tik martxoaren 16ra arte zabalduko da.

Izena emateko www.bertsozale.eus atarian sartu eta bertan topatuko duzue bete beharreko izen-emate fitxa. Gogoan izan begirale gisa etortzeko beharrezkoa dela bertso-eskolako kide izatea eta begirale titulua edukitzea.

Udalekuetan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoentzako izen-ematea martxoaren 13an zabalduko da bertso-eskoletako kideentzat edota gurasoren bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenentzat. Gainerakoek martxoaren 30etik aurrera izango dute aukera.

Txanden inguruko informazioa eskainiko dizuegu datorren hilabeteko BertsoZalean eta laster www.bertsozale.eus atarian.



Puntu jarrita

AITOR ALBISTUR PULIDO

Latza galdera, Maialen!

Ba bai, gu 99an hasi ginen herri-arteke txapelketan eta bertso-zirkuituetan agertzen. Gure kasuan ez ginen ez Eskolarteko, ez gazte mailako eta ez beste inongo aurre-zirkuitutik igaro. Gure adinkide –eta idolo– genituen bertsolariak entzutetik eurekin lehiatzera pasa ginen, berriz ere berreskuratu nahiko nukeen inuzentzi, naturaltasun eta freskotasunez. Haiek garaiek, haiek!

Horregatik esan izan dut ez garela bertso-belaunaldi bateko partaide sekula sentitu. Gure adinkideak erabat kontsakturik zeuden ordurako eta belaunaldi gazteagoak guk baina eskarmentu gehiago zeukan, oholtzan behintzat. Beraz, mailakide izan genitzakeenak baino zaharragoak ginen eta adinkide geneuzkanen maila ofizialetik behera geunden. Hori sentitzen genuen, behintzat.

Hori bai, adrenalina beste guztiek adina atsegin genuen. Garai haietan gehienek baino gehiago, ziurrenik. Casey Stoner hutsak ginen. Motoan ibiltzea izugarri gustatzen zitzaigun, ahalik eta abiadura handiengan. Dena azkar egin nahi genuen –entzun, erantzun–, arriskuaren inongo noziorik gabe –dena zen bale/kale–. Erabateko *suizidak* ginen. *Vuelta rápida* bat egin genezakeen eta, era berean, bihurtune errezenean pistatik ateratzeko gai ginen. Gora gaztetasunaren axolagabetasuna!

Eta bai, egia da, urte dezente zirkuituetatik kanpo egon ostean, *motero zaharrak* 2017ko herri-artekean parte hartzeko gonbita jaso du... eta ezin ezetzik esan! Bere ikasle izandako piloto bikainekin motoari *puesta a puntoa* egin nahian nabil, azken karreretan gozatu –eta gozarazi– nahian.

Zer diok, nire adinkide –eta idolo– haizen horrek, Sarriegi? Ze zirkuitutan ibiltzen haiz azkarren? Eta erosen? Eta, azkenik, noiz arteko ibilia zeukak hire motorrak goi-mailako zirkuituetan?

Koplak

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ikus-entzunezko teknikaria behar du

Egun erdiko lan kontratua da eskaintzen dena, Amasa-Villabonako egoitzan. Otsailaren 12ra arte bidali ahal izango da Curriculum Vitae eta motibazio gutuna: postaz Amasa-Villabonako Subijana egoitzara edo posta elektronikoz hedapena@bertsozale.eus helbidera. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.

Poto-Finixa



Otsailaren 16an aurkeztuko da 2017ko BBK Sariketa

XXV. edizioa izango da aurtengoa. Beti bezala adin tarte bitan jokatu da Txapelketa: 18 urtera artekoak; eta 24 urtera artekoak. Finala martxoaren 11n jokatu da Bilbon. Aurtengo sariketan ere Bizkaiko zortzi eskualde ordezkatzeko dituzten zortzi taldek parte hartuko dute. Lau kanporaketa jokatu dira, finalurre bi, eta finala.

<p>Kontratazioak eta informazio gehiago:</p> <p>Lanku www.lanku.eus 943 26 07 55</p>	<p>TESTURAK</p> <p>TESTOTIK TESTORA ZABALETIK ESTURA</p> <p>LITERATURA TESTOTATIK ABIAZTUTAKO BERTSO SAHIA</p>	<p>OHOLTZA</p> <p>BENAT KROLEM</p>	<p>PETRESKU ETZI EZ ETZI!</p>
---	---	---	--------------------------------------

PUBLIZITATEA